


Euskal AEko eraikuntzako kostuak %0,2 gehitu ziren 2018ko maiatzean aurreko hilaren aldean

2017ko maiatzaren aldean %2,5 gehitu ziren

2018ko maiatzean Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizea %0,2 gehitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasan %2,5 gehitu zen iazko maiatzaren aldean, EUSTATEN datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Aurreko hilarekin konparatua, lan-eskuaren kostuan ez zen aldaketarik izan (%0,0) eta lehengaien kostua %0,3 igo zen.

Etxegintzako azpisektorearen lehengaien kostuak %0,2ko hazkundera izan du, eta Obra Zibilarenak %0,7koa. Urte artean bi azpisektoreetan izan da hazkunderik, baina aldeekin, zeren Etxegintzan lehengaien kostuak %2,5 gehitu baitira eta Obra Zibilean %4,4.

Sektoreak kontsumitutako lehengaietan urte artean (2018ko maiatza 2017koaren aldean) prezio hazkunderik handienak sektore hauek izan dituzte: *Petrolioaren fintzeak* (%17,5), *Metalurgiak* (%6,3) eta *Industria kimikoak* (%3,9). Aldiz, lehengaietan prezio jaitsierak

sektore hauek eduki dituzte azken hamabi hiletan: *Zuraren industriak* (%0,8), *Kautxu eta plastikoak* (%0,2) eta *Material elektronikoak* (%0,1).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2018ko Maiatza

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	103,9	0,2	2,5	1,5
Eraikinak	103,8	0,2	2,3	1,4
Obra zibila	104,3	0,5	3,7	2,1
LEHENGAI	102,2	0,3	2,7	1,4
Eraikinak	102,1	0,2	2,5	1,3
Obra zibila	102,6	0,7	4,4	2,2
LAN-ESKUA	109,8	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2010=100
 (p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62